

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAPUEBLA DE LABARCAKO UDALA

Jendaurrean jartzea zabor bilketako zerbitzu publikoaren tasaren 2025eko bigarren seihilekoari dagokion errolda, eta kobratzeko aldia irekitzea

Zabor bilketaren zerbitzu publikoaren tasaren 2025eko bigarren seihilekoari dagokion errolda egin da eta, honen bidez, jendaurrean jartzen da hamabost egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik aurrera, interesa dutenek aukera izan dezaten aztertzeko eta, hala badagokio, egokitzat jotzen dituzten alegazioak eta erreklamazioak aurkezteko.

Alegaziorik aurkezten ez bada, errolda behin betiko onetsitzat joko da, eta hasiera emango zaio kobratzeko aldiari.

I. Ordaintzeko epea.

A) Borondatezko epea: 2025eko irailaren 16tik azaroaren 17ra.

B) Beteazte aldia: 2025eko azaroaren 18tik aurrera beteazte aldia hasiko da, eta beteazte errekaruak, nola premiamendu murriztukoak hala arruntekoak, ordaindu beharko dira, otsailaren 28ko 6/200 5 Foru Arau Orokorrak, Arabako zergenak, adierazitako epeetan.

II. Ordaintzeko tokia eta modua.

A) Aurreko urteetatik ordainketa banku erakundeetan helbideratuta dutenek ez dute inolako izapiderik egin beharko, helbideratze kontua aldatu ez badute. Udalak izapidetuko du ordainketa.

B) Helbideratu gabeko ordainketak: ordainketa bankuan helbideratuta ez daukatenean, udal-letxean eskatu edo dirua sartu ahal izango dute udalak Kutxabank finantza entitatean duen dirubilketarako kontuan.

Ediktu honen bidez, halaber, erroldako likidazioen jakinarazpen kolektiboa egiten da, bat etorritz Arabako Zergen Foru Arau Orokorraren 98.3 artikuluan xedatutakoarekin.

Aldizkako epemuga eta jakinarazpen kolektiboa duten zorrak izanik, berraztertzeko errekurtsioa jarri ahal izango zaio alkateari, ordainketa egiteko borondatezko epean edo epe hori amaitu eta hurrengo egunetik hilabete pasatu baino lehen.

Lapuebla de Labarca, 2025eko irailaren 4a

Alkatea

MARÍA TERESA CÓRDOBA FERNÁNDEZ